

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren jarduera nagusia leku jakin batzuen historiari buruzko datuak ikasteko aplikazio mugikor bat da; hasieran Euskadin izango da, baina handituz joango gara, Espainiako datu guztiak lortu arte.

Enpresaren balioa eta bezeroekiko harremana hobetzeko, Euskadiko merkataritza-gune batzuetan salmenta- eta bilketa-lanak jarriko ditugu. Aurrez aurreko tratua izan dezakegu bezeroekin hurbilago egoteko, eta app-aren bidez eskuratzen duten merchandising-a jaso ahal izango dute.

Era berean, lehiaketak online egingo ditugu enpresaren barruan, hilean ordaintzen duten bezero harpidetu guztiak parte hartu ahal izan dezaten, eta deskontu eskusiboak eta promozioak lortu ahal izan ditzaten. Funtzio eskusiboen prezioa jaisteko, gure newsletterrerako harpidetzaren bidez bakarrik lortuko diren deskontuak jarriko ditugu.

AV bezeroekin ahalik eta eraginkorrena eta azkarrena izateko konpromisoa hartuta dago. Beti egongo gara beraientzat, haien gorabeheri erantzuteko. Gure lokalean banatu egingo gara emailei, deiei, web-txatei, salmenta-puntuetako zalantzei eta abarri erantzun ahal izateko, eta, aldi berean, merchandising eskaera guztiei eta aplikaziorako hobekuntza-eguneraketei buruz egunean egoteko.



Azkenik, gure aplikazio berritzailearekin, eraginkortasun eta efizientzia handiagoa izango dugu, bere prezio ekonomikoagatik eta biztanleria osoan duen eraginkortasunagatik. Badakigu bezero askoren bizimodua aldatuko zela eta ez zaiela gastu edo ahalegin gehigarri bat gertatuko, gure aplikazioa izan aurretik ez zutena.